Rodriguez Menendez, 'El Frances'-en abokatua, larri dago tirokatua izan ostean

Atzo goizaldean bala batek birika zulatu zion, Bilbotik bere etxera iritsi zen unean

Agentziak / **Madril**

Emilio Rodriguez Menendez abokatua egoera larrian dago, atzo goizaldean tirokatua izan ostean. Agentziek diotenez, bi pertsona zain zituen etxe aurrean, eta tiro egin zioten. Bala batek eskuineko birika zulatu zion, eta ebakuntza egin behar izan zioten atzo. Gertatuaren bi bertsio ezberdin daudela zabaldu zuten atzo agentziek; lekukoena eta poliziarena ez datozela bat.

EMILIO RODRIGUEZ MENENDEZ *Brouard kasuan* inputatutako Juan Jose Rodriguez Diaz *El Frances*-en abokatua da. Hain zuzen ere, atzo tirokatu zuten unean, goizaldeko 1:25 inguruan, Bilboko Entzutegian kasu horrengatik egindako diligentzietan parte hartzetik zetorren. Izan ere, herenegun Jose Barrionuevo Espainiako Barne ministro ohiak eta Francisco Alvarez Borroka Antiterroristako Aginte Bakarreko buru ohiak deklaratu zuten Bilboko Entzutegiko instrukzio epailearen aurrean, eta abokatu madrildarrak deklarazioetan parte hartu zuen.

Madrilgo Ospitale Klinikoan dago uneotan Emilio Rodriguez Menendez, parte medikoak dioenez «oso egoera larrian». Izan ere, hasiera batean tiroak sorbaldan jo zuela uste bazuten ere, geroago ospitalean egindako azterketak argitu zuen tiroak eskuineko birika zulatu ziola. Hori dela eta, ebakuntza egin behar izan zioten, eta horrela ikusi zuten jasotako balak ez zuela kalte gehiago eragin. Ebakuntzaren ostean, Rodriguez Menendez abokatua Zainketa Berezietako Unitatera eraman zuten eta han dago orain, egoera larri baina egonkorrean.



Xouse Simal

Emilio Rodriguez Menendez, herenegun, Bilboko Entzutegira sartzen.

Gertakariak

Tiroketa nola gertatu zen kontatzerakoan —bizkartzainak ere tiro egin baitzuen— bi bertsio ezberdin daude, atzo informazio agentziek zabaldu zutenez: Guardia Zibilarena eta gertakarien lekuko izandako bizilagunena. Guardia Zibilak Rodriguez Menendezen bizkartzainak kontatutakoa hartu du bertsio ofizial gisa, baina lekukoek ez dute gauza bera kontatzen. Poliziak dio abokatua tirokatu zuten bi pertsonak haren zain zeudela Madrilgo Las Rozas auzoko bere etxe parean, kasko gorriak zituztela buruan eta tiro egin ostean potentzia handiko moto batean aldegin zutela. Abokatuaren auzokideek diotenez, berriz, tiroen egileek Rodriguez Menendezen autoari jarraitu ziotela diote, eta ez zutela moto batean aldegin, kotxe batean baizik.

Lekukoek kontatutakoaren artean ere badago ezberdintasunik. Izan ere, lekuko batek dio abokatua zaurituta zegoelarik autoan zihoazenek «ardura gehiago» erakutsi zutela autotik hainbat poltsa ateratzen, zauritutakoari laguntzen baino. Beste lekuko baten arabera, Rodriguez Menendez beste auto batean sartu zuten ospitalera eramateko, eta bizkartzainak zenbait maleta eta zabor-poltsa atera zituen Madrilera eraman zituen autotik. Polizia eta lekukoen bertsioen arteko beste ezberdintasuna da lekukoek lau tiro entzun zituztela eta poliziak zortzi balazorro aurkitu dituela.

Rodriguez Menendez abokatu ezaguna da, eraman dituen kasuak ere ezagunak izan baitira. Izan ere, *Dioni*-ren abokatua izan zen, orain Aitor Zabaletaren heriotza leporatzen dioten Ricardo Guerraren defentsa darama, eta Roldan, Filesa eta diru bereizien kasuetan herri akusazioa eraman izan du.

Hamasei plataformak giza katera deitu dute zigorraren hiru laurdenak betetako presoen askatasuna eskatzeko

Bilboko Gran Via zeharkatuko duen kilometroko metalezko katea izango da batasunaren adierazgarri

Erredakzioa/**Bilbo**

BIZKAIKO 16 herri plataformak deialdi bateratua egin diote gizarteari bihar Gran Via zeharkatuko duen giza katean parte har dezaten euskal presoen eskubideen alde. *Justizia espainiarraren hiru laurdenak gezurra dira* izenburupean, Arenaletik abiatuko da giza katea, eta Plaza Eliptikoraino helduko da hiru laurdenak betetako presoen askatasuna eskatzeko.

Barakaldo, Portugalete, Durango, Zornotza, Lezama, Santurtzi, Sondika, Mungia, Erandio, Bilbo, Lekeitio, Markina, Basauri, Leioa, Algorta eta Galdakaoko herri ekimenetako ordezkariek azaldu zutenez, giza katean kilometro bateko kate metaliko bat eramango dute. Era horretan «PPren gogortasuna eta epaile zein fiskalen inmobilismoa apurtuko duen batasun eta sendotasuna azaldu nahi dugu», nabarmendu zuten.

Herriz herri eta auzoz auzo egiten ari den lan handiaren balantze baikorra egin ostean, plataformek nabarmendu zuten giza eskubideen alde dihardutela, une politikoak eragin ditzakeen aldaketak aintzat hartu gabe.

Bestalde, herenegun Manu Legarretaetxebarriari baldintzapeko askatasuna ukatu zion ebazpenaren aurkako errekurtsoa ikusi zen Bilboko Entzutegian. Mungiako presoak 20 urte bete ditu kartzelan, eta bigarren graduan egotea arrazoitu du fiskalak baldintzapeko askatasunaren kontra agertzeko.

Bestalde, Durangoko errugbi taldeak eta Tabira mendizale elkarteak hainbat ekimen egingo dituzte gaurtik igandera bitartean euskal presoak Euskal Herrira ditzatela eskatzeko. Gaur iluntzeko 19:30etan, adibidez, kartelada bat izango da, eta bihar arratsaldeko 4:30etan errugbi txapelketa.

laburrean

■ 34 urteko zigorra bost lagunentzat 'Bizkaia komandoari' laguntza emateagatik

ENTZUTEGI NAZIONALAK zortzi urteko zigorra ezarri die Jose Manuel Valdueza eta Maria Jesus Muruagari, eta sei urtekoa Jose Mari Azpitarte, Asun Elgorriaga eta Aitor Zabaletari, *Bizkaia Komandoari* laguntza ematea leporatuta. Izan ere, Entzutegi Nazionalak dio Valduezak 1989an ETAren agindua jaso zuela etakideak euren etxeetan hartuko zituen jendea bilatzeko. Bestalde, frogatutzat jo du Valduezaren eta agindua eman zionaren arteko bitartekari lana Muruagak egin zuela. Bestalde, Entzutegi Nazionalak absolbitu egin ditu kasu berean auzipetutako beste hiru lagun: Jon Jauregi, Pedro Mendizabal eta Maria Rosa Garcia.

■ Herrerako presoen egoera salatzeko kontzentrazioa, gaur, Tolosako PPko zinegotzi baten etxe aurrean

CARLOS ARANIGURIA PPko zinegotziaren etxe aurrean kontzentrazioa egingo dute gaur arratseko 20:00etan Tolosan, Herrera de la Manchako euskal presoek jasaten duten isolamendua salatzeko. Zinegotziari gutun bat helaraziko diote; eta, Tolosako lau presok jasaten duten «legez kanpoko egoera» ezagutarazteaz gain, Herreran dagoen Peio Odriozolaren «egoera larriaren erantzule» dela gogoraraziko diote. Herrerako zuzendaritzak maiatzean 20 preso zigortu zituen 1.022 eguneko isolamendura, Euskal Herriratzea eskatzeagatik.

■ Bittor Valderrama euskal presoa Martuteneko kartzelatik irten zen atzo

BITTOR VALDERRAMA Intxaurrondoko presoa Martutenetik irten zen atzo goizean, lau urtetan Espainiako hainbat kartzelatan egon ondoren. Iaz Entzutegi Nazionalak Valderramaren kartzelatzeko agindu zuen, zigorraren hiru laurdenak beteta zituen arren. Valderrama 1992an atxilotu zuten, eta Entzutegi Nazionalean deklaratu ondoren Alcala Mecora eraman zuten. 1995ean behin-behineko askatasuna lortu zuen, baina 1998an berriro espetxeratu zuten.